

Familia estimatuak,

Egoera berezi honetara egokitzen ari gara guztiok, erabakiak pausoz pauso hartzen ari gara egoerak hala eskatuta eta ahalegin berezia egiten ari gara gure ikasleen, familien eta langileen beharretara moldatzeko.

Ostegunean adierazi genizuen moduan, jardun pedagogiko presentziala etenda dago, baina irakasleok lanean jarraitzen dugu. Etapa eta mailaren arabera mezu ezberdinak jaso dituzue etxean, ikasleen adinari egokitutako aholku eta zereginekin. Lehen Hezkuntzako 3. ziklotik gorako ikasleekin harremana zuzena eta jarraia izango da (ikasleek badutelako irakasleekin on-line jarduteko aukera). Hortik beherako mailetan, gurasoak izango zarete mezulari. Zuen bidez jaso dituzte eta jasoko dituzte aurrerantzean ere zereginak eta aholkuak.

Atzo hasi genituen on line klaseak eta lehen momentuan baliabide digital batzuk arazoak eman zituzten arren, Alexiaren eskutik erabiltzaile kopurua oso handia kudeatzeko aldaketak egin zituzten eta segituan martxan jarri ginen.

Webgunean erabili ditzakezuen baliabideetarako loturak eta etxetik jarduera fisikoa egiteko proposamenak jarriko ditugu eta irakasleek ere baliabide aukera desberdinak proposatzen joango dira adinaren arabera.

Irakasleen lanaldia antolatzerakoan, eta osasun agintariek ematen dituzten aholkuei jarraituz, etxetik lan egin dezaten lehenetsi dugu. Irakasleen arteko koordinazio guneak sortu ditugu eta egoeraren arabera, beharretara egokituz joango gara. Beraz, familiok irakasleekin harremana eduki behar baduzue, beraien e-mailetara idaztea eskatzen dizuegu. Idazkaritzako langileen ordutegi presentziala ere egokitu egin dugu. Telefonoari goizeko 8:00etatik 14:00etara erantzungo diote.

Egun hauek ere aprobetxatuko ditugu garbiketa sakona egiteko. Honetarako makina bereziak eskuratu ditugu, ozono bonbak, eta hauen laguntzaz Ikastolako eremu guztien desinfekzioa burutzen ari gara.

Jakin badakigu egoera ez dela samurra baina saia gaitzen gure seme-alabei eguneroko egituratua eskaintzen, pantailekin harremana neurtzen, beraiekin ahal dugun guztia hitz egin eta jolasten eta euskararekin harremana bermatzen.

Azkenik, familiei proposamen bat luzatzen dizuegu. Instagram-era marrazki edo argazki bat igotzea proposatzen dizuegu, **#EKINTZAmartxan** hashtag gehituz. Modu honetan egunerokotasuna nola daramagun ikusten goaz eta umore pixka bat botatzen diogu egunari. Zer iruditzen zaizue proposamena? Gu behintzat animatuko gara

Besarkada handi bat!

Estimadas familias:

Esta situación nos obliga a todos a ir adaptándonos y a tomar decisiones nuevas todos los días dada la situación tan cambiante que vivimos y estamos haciendo un esfuerzo especial para adecuarnos a las necesidades de nuestro alumnado, familias y trabajadores.

Tal y como os indicábamos el jueves, la práctica pedagógica presencial está suspendida, pero los profesores seguimos trabajando. Habéis recibido diferentes mensajes según la etapa y el nivel, con consejos y tareas adaptadas a la edad del alumnado. El contacto con el alumnado a partir del 3º ciclo de Educación Primaria será directo y continuo (porque los alumnos tienen la posibilidad de colaborar on-line con el profesorado). En niveles inferiores, los padres y madres seréis los mensajeros. Continuarán recibiendo tareas y consejos a través de vuestros medios.

Ayer comenzamos las clases on line y aunque algunos recursos digitales dieron problemas en un primer momento, desde Alexia hicieron los cambios necesarios para gestionar un gran número de usuarios y enseguida nos pusimos en marcha.

En la web pondremos enlaces a recursos que podéis utilizar y propuestas para realizar actividad física desde casa y el profesorado también irá proponiendo diferentes alternativas de recursos en función de la edad.

A la hora de organizar la jornada laboral del profesorado, y siguiendo los consejos de las autoridades sanitarias, hemos priorizado el trabajo desde casa. Hemos creado espacios de coordinación entre el profesorado y en función de la situación iremos adaptándonos a las necesidades. Por lo tanto, si necesitáis poneros en contacto con los profesores, os pedimos que lo hagáis por e-mail. También hemos adecuado el horario presencial del personal de Secretaría. El teléfono será atendido desde las 8:00 hasta las 14:00 horas.

También aprovecharemos estos días para hacer una limpieza profunda en la Ikastola. Para ello hemos adquirido máquinas especiales como bombas de ozono y con su ayuda estamos realizando la desinfección de todas las zonas de la Ikastola.

Somos conscientes de que la situación no es sencilla pero os animamos a ofrecer a vuestros hijos e hijas un día estructurado, a medir el tiempo que pasan frente a las pantallas, a hablar y jugar con ellos todo lo que podáis y a garantizar la presencia del euskara en vuestras casas.

Por último, a las familias os proponemos subir un dibujo o fotografía a Instagram, añadiendo **#EKINTZAmartxan** hashtag. De esta forma, nos vamos viendo las caras, vemos cómo vamos sobreviviendo al día a día y le echamos un poco de humor a esta situación. ¿Qué os parece la propuesta? Nosotros nos animaremos a hacerlo.

¡Un gran abrazo!